

ANAI LEON MANTXOLA AGIRREREN HILETA

Irun, 2019.11.18

SARRERAKO MONIZIOA

Anai Mikel Balerdi,
La Salle eneko Zuzendaria

Apaiz, senide, Anai eta lagun maiteok: Ongi etorri ospakizun berezi honetara.

Egia esan Leonekin hain inplikatuak geunden, egunero pentsatzen genuela: *“gaur ez zaigu joango”*. Egia da zalantzak bageneuzkala. Egia da bagenekiela egun batean joango zitzaigula. Hain inplikatuak geunden sendagile eta erizainaren esanarekin, egunero esaten geniola elkarri: *“krisialdi hau gainditzen dugu”*. Egia da zalantzak genituela. Egia da, jakin, jakin, bagenekiela egun batean joango zitzaigula, baina egunero aurkitzen genituen arrazoiak asteburua ondo joango zitzaigula pentsatzeko.

Gizon honen misterioak, La Salleko eta guztion Anai zen honen misterioak, bildu gaitu gaur hemen. Misterioa, bai, eguneroko gorabeheretatik harantzago begiratzen jarri gaituelako. Ospatzera goaz, gaur goizean gorputzari lurra eman badiogu ere, bere hoberenari ez diogula lurra eman: barne bizitzari, maitasunari, samurtasunari, Jaunarekiko harreman beroari..., Jesus berpiztuarekin bizi izan duen guzti honi, fedea horrela baieztatzen baitigu.

Presta gaitezen eskerrak emateko eukaristia hau itxaropenaz ospatuz.

HOMILIA

Anai Juan Carlos Orus,
Ikuslari Laguntzailea

Irakurgaiak: Erm 6,3-9 / Sal 102, 8 y 10. 13-14. 15-16. 17-18 / Jn 12,23-28

Anai Leonen iloba eta senide maiteok; Anai, salletar eta lagunok.
Queridos amigos:

Aitak berpiztutako Jesus Jaunak deiturik hurbildu gara La Salle-Eneako gure Etxe honetara, esperantzaz beterik eta Biziaren Jainkoarenganako esker onez, gure Anai Leonen agurra elkarrekin bizitzera

Hoy, esta Comunidad lasaliana vive su especial Pascua, como acción de gracias por la larga y fecunda vida de nuestro Hermano, por quien manifestamos nuestra profunda estima, como él hizo a lo largo de su vida, acompañando a tantos lasalianos en el servicio de la misión. Por eso, Hermano León, alzaremos al Padre por ti la copa de la salvación, hecha realidad en el cáliz de esta Eucaristía, porque el buen Dios ha sido generoso contigo a lo largo de la vida.

Anai gutxi izango dira Anaidian ehun urteen muga Anai Leonek bezainbat gainditu dutenak. Larunbatean, udazkenean murgildurik, Barrutiko Anai zaharrena genuena, bizialdi

honetako arbolatik askatu eta Jainkoaren maitasunezko altzoan hartua izan zen, bere Anaiek eta zaintzaileek abegizko eta kontsolamenduzko hitzak xuxurlatzen zizkioten bitartean.

Gure Anai Leon Jainkoagan hil zaigu, fedean errotua, ehunda hiru urte eta zazpi hilabete zituenean. Lasai eta bakez joan zaigu Kristau Eskoletako Anaia izanik bere bizia entregatu ondoren. Bere heriotzak biziaren misterioaren aurrean jartzen gaitu, pertsonaren misterio sakonarekin topo eginez. Eta bat-batean Jainkoarenganako esker ona sortzen da gure baitan Leonen bizitzagatik, eta harengan Jainkoarekin topo egiteko grazia izan dugulako. Pertsona xume honengan etsenplu ugari jaso ditugu, Jesusen antzera, on egiten pasa baita.

Un somero vistazo a su larga vida nos revela su fe, sus profundas convicciones, aquello que amaba y valoraba, los motivos por los que se introdujo hasta lo íntimo de muchas personas, convirtiéndose en parte entrañable de sus vidas. Y lo consiguió, sin duda alguna, porque su proceder hundía sus raíces en la convicción de que la grandeza no estriba ni en el poder, ni en el rango, ni en los títulos, sino en la disponibilidad, el servicio y la ayuda a los demás.

Como lo describía un Hermano que fue director suyo, era alguien *“de mente abierta, constante en sus cometidos, siempre ocupado, austero, y de profunda espiritualidad; de ritmo vital envidiable, ilusionado con el futuro de La Salle y sus transformaciones... Un auténtico faro que nos indica el camino a seguir para acertar en la vida y en nuestra vocación lasaliana. ‘Lo ordinario realizado de manera extraordinaria, dando especial importancia al momento que se vive’, puede resumir su lema de vida.”*

Izan ere, Anai Leoni buruz hitz egitea, Jainkoaren ontasunez kutsatutako pertsonaz hitz egitea da. Jainkoaren Hitza entzun eta bihotz hondoan hausnartu ondorengo ontasunez hitz egitea. Ehunda hiru urteek datu askori buruz eta bizipen esanguratsu ugariz jarduteko aukera ematen dute. Baina bizitza hain aberatseko gertakari eta pasadizo puntualen gainetik, haren begiradaren hondoan eta haren hitzen sakonean aurkitzen ditugu hain indar handiz gure Anai Leonen bihotzaren lur emankorrean salletar bokazioa posible egin duten motibo eta arrazoi sakonak. Horregatik ospatzen dugu gaur harengan loratu eta fruitu ugari eman duen bizitza betea.

Si San Juan Bautista de La Salle, leyendo su propio itinerario, decía que un compromiso le fue conduciendo a otro, y que esto sucedió de forma casi imperceptible, y que así se fue construyendo su vida, la experiencia personal de nuestro Hermano León no ha sido muy diferente. Un recorrido fecundo de entrega generosa a la vocación, llena de respuestas positivas al Dios que le llamó desde joven y al que dijo sí, sin reparos.

1916ko apirilaren 10ean jaio zen Urtatza baserrian, Legazpin, izen bereko auzoan. Familia handia berea: 5 anai eta 4 arreba, horietako 3 erlijiosak. Oinarrizko heziketa Legazpiko herri-eskolan egin zuen, batez ere, 12-13 urte zituenean Zumarragako Salletar Anaïen Eskolan bukatuz. Han ezagutu zuen La Salle. Bere Nobiziatu Txikia 1929-1930ean egin zuen, hiru toki ezberdinetan: Irun, Maule eta Bujedon. Izan ere, 1930 urte arte Irungo Etxea Baiona-Donostia Barrutikoa izan zen; eta 1930ean Valladolidedeko Barrutira pasa, 1939-1940 ikasturte arte.

Nobiziatua eta Eskolastikadua Bujedon bizi izan zituen 1932tik 1935 arteko urte gatazkatsu haietan. Etxe hartan egin zuen betiko profesora ere, 1941ean. Bere formazio teologiko eta akademikoa Bujedo, Valladolid eta Bilbon osatu zuen, Erroman egindako “segundo noviciado” izenekoarekin burutuz, 1957-1958 ikasturtean

Nuestro Hermano León desempeñó una intensa vida apostólica al servicio de la misión: 5 cursos en el Colegio Nuestra Señora de Lourdes (Valladolid), 22 cursos (en dos etapas diferentes) en el Colegio Santiago Apóstol de Bilbao, donde se destacó como Prefecto; 2 cursos en el Colegio La Salle de San Sebastián, 4 cursos como Director del Aspirantado Menor de San Asensio, otros 4 cursos como director del entonces reformatorio de Olaz-Chipi (Huarte), 6 cursos en Eibar... sin olvidar otras estancias más cortas en la Escuela de Torrero de Zaragoza o en el Colegio Los Ángeles de San Sebastián.

Ikastetxe eta elkarte guzti hauek Anai Leonen entregaren, dinamismoaren eta gauzak ongi egitearen lekuko izan ziren. Eta ibilbide luze honetan Leon ezagutu dugun guztiok bihotzez eskertzen ditugu “erromes nekaezin” honen bizi-testigutza eta salletar konpromisoa. Entzundako Jainkoaren Hitzak Anai Leonen bizi izandako urte luze horien talaiatik hausnartzerakoan, bere bizieran haragitzen joan izan dela konturatzen gara. Existentziaren emankortasuna non datzan ikusten laguntzen digu, lurperatua izan den gari-haziaren antzekoa izan da, eta adoretzen gaitu gu ere Jesusen jarraitzaileen klabe sakonetan bizitzera, Korintoko Elkarteari idatzitako kantikan hain ederki azaltzen dena: “maitasunik ez badut ez naiz ezer”.

1983an, 67 urte zituenean, etorri zen Irungo Etxe honetara, Anai Alberto Zabalak, Eskolastikaduko bere lagunak, eskatuta, orduko Anai Ikuilari Jesus Eguskizak haien eskutan jartzen zituen zenbait zereginak elkarrekin egiteko: bideoteka, Ikastetxeko Idazkaritzan laguntzea, Sakristiaren ardura eta, Euskal Liburutegia, 2002 urte arte

La Salle-Eneako Etxe honetan bakez, duintasun eta baretasun handiz eraman ditu zahartzaroak berarekin dakartzan ajeak. Gaztaroko indarrak, bere izenak iradokitzen zuena, gutxitzen joan arren beti agertu da erlijioso leial, kartsu, prestasun handiko, gozo eta eramanpeneko, bere osasunean arretatsu, gizarte eta munduko berritasunetara zabalik, gertutik jarraituz salletar sekular asoziatuen errealitatea, bizitzaren eta pertsonen alderdi positiboak beti baloratuz... azkenera arte bere elkartean eta elkartearen jardueretan presente egon eta parte hartzen saiatu da, bere taka-takarekin edo bere gurpil-aulkian edo hain ongi lagundu dioten laguntzaileei besotik helduz...

Si durante años enseñó muchas materias, también nos ha enseñado aquí, con su ejemplo vital, a abordar las últimas lecciones, las más difíciles, para las que hay que tener “buena base”, desde su rostro siempre alegre y luminoso. Recordándonos a todos, en palabras de su H. Director, que a La Salle-enea se viene a vivir, y que con el cuidado de la comunidad y de las personas que aquí atienden, se vive más tiempo y de mejor manera.

Gracias por eso a todos y todas los que hasta su fallecimiento le habéis acompañado como Hermanos, familiares y lasalianos a lo largo de tantos años, en el trabajo, la oración y el descanso; gracias especialmente a quienes, desde la enfermería de Salle-Enea, le habéis atendido con cariño y mimo, estando junto a él sobre todo en los momentos difíciles y

delicados. Agradeced vosotros también, porque habéis gozado del regalo que Dios os ha hecho con su presencia, compañía y amistad.

Anai Leonen bizitza eta harekin bizi-izandakoa gogoratzen dugunean, berez sortzen zaigu bizipoz sentimendu partekatua. Atzean geratzen dira bi mendeen artean bizi izandako urte asko, jarduera askoren bitartez gizatasuna eta jakinduria transmitituz. Haren bizitza intentsitate handikoa izan da, zorientzua, Jesusen eta Erreinuaren alde emana, eta Aitaren eskuetan amaitzen dena heriotzarik eta amaierarik gabeko egunean. Sinetsi sinesten baitugu Jesus Berpiztu zuen Aita Onak, eta gure betikotasun-egarria asetzen duenak, gauza bera egiten jarraitzen duela Anai Leonengan eta gure etorkizunaren berme ere badela.

Norbaitek hau zioen: “Bizitzaren amaieran ez dizute galdetuko nor izan zaren, baizik zer utzi duzu zure bitartez pasatzen”. Hau da: zeren isla izan zara? Gure Anai Leon Jainkoaren isla izan da zerbitzu eta keinu askoren bitartez, hitzaren bitartez bainoago. Anai Leonen bizitza eta jarrera pertsonala ederki asko adierazten du gure Anai Joaquin Gogorzaren “Ate eta aterpe” eskulturak: ate irekia izan, sartu eta irteteko, inguratzen gaituzten pertsonengana, errealitate eta gertakizunengana jarrera irekiz bizitzera gonbidatuz. Eta aterpe, geure baitatik irtetera gonbidatuz errealitatea geure barnean onartzeko eta beragandik hunkituak izaten uzteko. Eta horrela, hizketaldi handirik gabe, ekintza konkretuen bitartez, bake- eta elkar ulertze-eremuak sortu, zeinetan partekatu ahal izan dezagun eta elkarrekin hazi.

Que esta celebración que realizamos en la Pascua-paso de nuestro Hermano se convierta en compromiso por mantener sus mejores valores, aquellas cosas que apreciábamos en él, y que en un momento u otro de nuestra vida, nos hicieron bien y nos ayudaron a ser más felices. Que sepamos cuidar nuestro corazón para que sea noble y fuerte, generoso y grande, aportando lo que somos y lo que tenemos en la construcción del Proyecto de Dios.

*Erlijioso-bizitza dinamiko eta erakargarriaren zuzia eskuartean irmoki mantendu izan duzulako, eta egunak eta urteak pasa ahala egokitzen joan zarelako, ustekabean askotan etortzen zaigun berritasuna deskubrituz... Esker mila, Anai Leon!
Aurpegira maitekiro begiratu ahal izan zaitugulako eta “Anaia” esan; gure aurretik joanez, ez bakarrik urtetan baizik espirituan eta adorean, erakutsi diguzulako fededun eta La Salleko Anaia bezala bizitzen jarraitzeak merezi duela... Esker mila, Anai Leon!*

*Gracias, León, hermano y amigo, por haber hecho camino con nosotros.
Descansa en el abrazo maternal de Dios.*

Egun handira arte!